

Zaintzen Pedagogia

Eraikitzeko ekarpenak

- Laburpena -

Izenburua: Zaintzen Pedagogia. Eraikitzeko ekarpenak

Edizioa: InteRed Fundazioa

Argitalpenaren koordinazio teknikoa: Iratxe Palacín Garay

Egileak: Guillermo Aguado, Luz Elena Patarroyo, Mertxe Larrañaga, Iratxe Palacín, Víctor Quilaqueo, Rosa María Mujica, Laura Modonato eta Deimy Ventura

Eskerrak: Asko dira lan honetan parte hartu duten pertsonak eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, beraien aportazioak, jakingurak eta konpromisua lan honen emaitza delaren ziurtasunarekin: Maitane Cabeza, Macarena Arrieta, Amaia Iturri, Amaia Antero Intxausti, Carmen Muñoz Regueras, Zuriñe Egia Olano, Ana Álvarez, Jorge A. Correa Quintero, Josune Urrutia Asua eta Another Press taldeari. Esker bereziak Guilermo Aguado eta Laura Modonaren komentario eta ekarpenei.

Imprimatzen du: Another Press

Azala ilustrazioa, diseinua eta maketazioa: Josune Urrutia Asua

ISBN: 978-84-946423-9-5

Lege Gordailua: BI-1072-2018

Argitalpena: 2018ko uztailean

CC BY NC ND

Argitalpen hau Garapeneko Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Bizkaiko Foro Aldundian finantzazioarekin burutu da.
Argitalpen honen edukia InteRed Fundazioaren ardura da eta ez du GLEA edo BFA aren iritzia islatzen.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZAINTZEN PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE LOS CUIDADOS

InteRed
por una educación transformadora

Berta Cáceresi, eta, harengan, gainerako guztiei.

6 **AURKEZPENA**

8 **METODOLOGIA**

10 **Zaintzen Pedagogia. Premiaz gauzatu beharreko hezkuntza - ikuspegia.** Guillermo Aguado de la Obra

ZAINTZEN PEDAGOGIA BAT ERAIKITZEKO IKUSPEGIAK

12 **Etika, herritartasuna eta giza eskubideak, Zaintzen pedagogiarako ekarpenak.** Luz Elena Patarroyo López

14 **Ekonomia feminista bizitzari eusteko eta bizitza kudeatzeko.** Mertxe Larrañaga.

16 **Ekofeminismoa, Zaintzen Pedagogiarentzako oinarri.** Iratxe Palacín Garay

18 **Ongi Bizitzea eta Zaintzen Pedagogia.** Víctor Quilaqueo G.

20 **Eskola-errealitatea eta Zaintzen Pedagogia.** Luz Elena Patarroyo López

22 **Eskoletan Zaintzen Pedagogia lantzeko metodologiak hautatzeko zenbait irizpide.** Rosa María Mujica

ESKOLETAKO ESPERIENTZIAK

24 **Arrasateko Arizmendi Ikastolako esperientziaren sistematizazioa: "Konfiantzaren pedagogia".** Laura Modonato

26 **Gasteizko Ramón Bajo Eskola Publikoko esperientziaren sistematizazioa.** Laura Modonato

28 **Markinako Eskola Publikoko jangelako autogestio-esperientziaren sistematizazioa.** Laura Modonato

30 **Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoko hezkidetza-esperientziaren sistematizazioa.** Laura Modonato

32 **Berdintasunaren Alde Elkartutako Gazteen (BAEG) Mugimendua. Zaintzen Pedagogiaren esperientzia baten sistematizazioa. Toscana Lisboa Eskola - Bogotá (Kolonbia).** Luz Elena Patarroyo López

34 **Bizitza Komunitateak. EPRODEPek haurrekin, nerabeekin eta gazteekin gauzatzen dituen hazkuntza pertsonalerako lantegien esperientzia.** Deimy Ventura

36 **Neskak garrantzitsuak gara. Cuzco departamenduko Quispicanchi probintziako (Peru) Landa Eskoletako lan-esperientzia.** Rosa María Mujica

38 **ZAINTZEN PEDAGOGIA ERAIKITZEKO BIDE KOMUNAK**

AURKEZPENA

InteRed garapenerako GKE bat da, Institución Teresiana erakundeak sustatutakoa, eta lanean dihardu 1992az geroztik gizarte-hezkuntzazko prozesuen bidez, giza eskubideetan eta generoan oinarritutako ikuspegi batekin, bidegabekeriak eragiten dituen egungo errealitate sozioekonomikoa eraldatzen eta pobreziaren, berdintasun ezaren eta bazterketaren aurka borrokatzen laguntzeko xedez.

Egungo errealitatea eraldatzeko nahi horrek bultzatzen gaitu herrialde gehienetako hezkuntza-sistemetan nagusi den begiradaz bestelako pedagogia-eredu bat bilatzera. Sistema horien xedea izaten da herritarrak lan-merkatuan sartzeko prestatzea, eta produktibitatea eta errendimendua areagotzea, sistema kapitalista heteropatriarkalaren mesedetan. Gure begiradak, beraz, hezkuntza-eredu horiek ez bezalako beste aukera bat eskaini nahi du, pertsonak eta natura hezkuntzaren ardatz bihurtuko dituen eredu bat. Horrela, merkatuei lehentasuna kendu, eta bizitzaren iraunkortasuna eta gizateriaren eta justizia sozialaren aurrerapena hartu nahi ditu oinarri.

InteRedeko kideok uste dugu ikuspegi berri hori taldean eraiki behar dela, era askotako ikusmoldez osatu dadin, justizia eta berdintasuna lortzen laguntzeko. Gainera, gure ikuspegia herritartasun globalean oinarritzea nahi dugu, Atlantikoaren bi aldeetako begiradak batuz, eta genero-ikuspegi garbia izatea. Horri horrela, lan kolektibo hau sortu dugu: Zaintzen Pedagogia. Eraikitzeko ekarpenak. Lanaren xede nagusia da zaintzen Pedagogia posible bat eraikitzen lagunduko diguten zenbait elementu biltzea, hainbat ahotsetatik eta ikuspegitatik, egungo hezkuntza-sistemetako begirada gailenaz bestelako proposamen bideragarri bat sortzeko bidean.

Zaintzen Pedagogiaren bidez, nagusi den garapen-eredua zalantzan jarriko duen hezkidetza-eredu bat eraiki nahi dugu, genero-berdintasunari lehentasuna emango dion guztiz bestelako eredu bat.

Zaintzen Pedagogia aipatzen dugu, zaintzak pluralean eta minuskulaz aipatuz, herritarren ekintzak nabarmendu nahi ditugulako; hau da, bizitzari eusteko eta gizartearen iraunkortasunaren alde gauzatzen diren jarduera guztiak. Honako hauek dira jarduera horiek, besteak beste: sabelean haztea, erditzea, haztea, elikatzea, janaria prestatzea, garbitzea, jostea, sendatzea, ura lortzea, ibiltzen erakustea, artatzea, entzutea, etxeko aurrekontua kudeatzea, kontsolatzea, irakastea, pertsona gaixoei eta mendekotasun-egoeran daudenei laguntzea, heriotzarako bidean laguntzea, etab. Lan horiek guztiak emakumeek egin izan dituzte nagusiki.

Gure ekarpenean, ikuspegi feminista gehitzen zaio ikuspegi anbientalistari. Gure begirada elikatzen duten iturriak dira, beste batzuen artean, ekofeminismoa, ekonomia feminista, kulturartekotasuna, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia, gaztelaniazko “cUidadanía” kontzeptua (“zaintzen gizarte” gisa azal genezake) edo herritarren arteko zaintza eta Ongi Bizitzea.

Curriculum edukiak, metodologia eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak berregituratzea ekarriko duen hezkuntza-proposamen baten aldeko apustua egiten dugu, zaintza oinarrizko printzipio bihurtze aldera. Eskola-testuinguruko beste eragile batzuek ikaskuntza-prozesu horietan parte hartzea ere ekarriko du, hala nola komunitateak. Elkarrizketarako eta elkartrukerako espazioak ireki behar dira, hezitzaileek beren jardunbideak eta egiteko moduak berrazter ditzaten noizbehinka, dagokien testuingurura eta ikasleen beharretara egokitzeko etengabe.

Azken batean, heteropatriarkatua deseraikitzen duten begiradak bildu ditugu lan honetan, bizitza erabaki pertsonalen eta sozialen ardatz bihurtzen dutenak, bai eta merkatuen eta kapital-metaketaren gainetik bizitzaren iraunkortasunari (zaintzak) bidea ematen dioten ekintza zehatzak ere. Esku artean duzun material hau Zaintzen Pedagogia. Eraikitzeko ikuspegiak lan zabalaren bertsio erabilerraza eta pedagogikoa da. Nahi izanez bero, lotura honetan aurkituko duzu lan luzea: **www.intered.org/pedagogiadeloscuidados**.

Gainera, Latinoamerikako hiru hezkuntza-jarduera eta Euskal Autonomia Erkidegoko lau aurkituko dituzu, esperientzia gehitzen dutenak, ez ingurumen-iraunkortasunaren esparruan soilik, baita pertsonen arteko bizikidetzaren eta haien barnekotasunaren esparruan ere, dugun planeta bakar honetan bizi diren izaki bizidun guztien zaintza sustatze aldera, gizakiak izan ala ez.

Material honetan Zaintzen Pedagogia zer den ulertzen lagunduko dizuten jarraibideak topatuko dituzulakoan gaude, eta horiek gauzatzeko gonbitea egiten dizugu, Lurra planeta osoko bizitzaren mesedetan.

METODOLOGIA

Dokumentu hau 2016-2018 urteetan gauzatutako ikaskuntza-prozesu kolektibo baten emaitza da, Atlantikoaren bi aldeetako pertsona hauen parte-hartzeari esker sortu dena: Guillermo Aguado (InteRed Espainia), Luz Elena Patarroyo (Kolonbia) Mertxe Larrañaga (Euskadi), Iratxe Palacín Garay (InteRed Euskal Herria), Rosa María Mujica (Peru), Víctor Quilaqueo (Guatemala), Laura Modonato (Euskadi) eta Deimy Ventura (InteRed Guatemala), eta

Prozesu honetako lehen urratsa izan da lantalde bat eratzea aipatutako erakundeekin eta pertsona adituekin, lan honen oinarri diren eduki teorikoak identifikatzeko eta lantzeko elkarren artean.

Eduki teorikoak lantzeaz gainera, zaintzen Pedagogiaren postulatu teorikoekin eta praktikoekin bat datozen zazpi hezkuntza-esperientzia ezagutu nahi izan ditugu lehen eskutik. Aurkezpenean esan dugun eran, horietako hiru Latinoamerikakoak dira, eta, beste lauak, Euskal Autonomia Erkidegokoak.

Latinoamerikako honako esperientzia hauek aztertu ditugu:

- Bogotá (Kolonbia): JUPI Mugimendua – Gazteak Berdintasunaren Alde. La Toscana Ikastetxea- Lisboa.
- Quetzal Hiria (Guatemala): Bizitza Komunitateak. EPRODEPeko hazkunde pertsonaleko tailerren esperientziak.
- Cusco (Peru): Quispicanchi-ko landa eskolak

Euskal Autonomia Erkidegoan bildutako hezkuntza-esperientzien bidez, autonomia-erkidegoan gauzatzen ari diren zenbait ikuspegi pedagogiko berritzaile ezagutu nahi izan ditugu, zaintzen Pedagogia osatzen duten gaietako eta metodologietako batzuk lantzen dituztenak: genero-berdintasuna, kontsumo iraunkorra eta eskolako edukien eta espazioen berregituraketa.

Horretarako, elkarrizketak egin genizkien honako pertsona hauei:

- Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoko (Bizkaia) zuzendariari eta ikasketaburuari, Ana Álvarez; hezkidetzaren alorrean duten esperientziaren berri eman ziguten.
- Markinako Eskola Publikoko (Bizkaia) jangelako autogestio-programaren arduradunari, Zuriñe Egia Olano, kontsumo iraunkorra sustatzen duen hezkuntza-esperientzia den heinean.
- Arrasateko Arizmendi Ikastolako (Gipuzkoa) Pedagogia Zuzendariari, Amaia Antero Intxausti; haien “konfiantzaren pedagogia” pedagogia-ereduaren postulatu teorikoen berri eman zigun.
- Gasteizko Ramón Bajo Eskola Publikoko (Araba) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleari, Carmen Muñoz Regueras; ikastetxe horretako berregituraketa arkitektonikoaren prozesua azaldu zigun, ikasleen beharrei erantzuten dien hezkuntza sustatzeko gauzatu dena.

Zaintzen Pedagogia. Premiaz gauzatu beharreko hezkuntza-ikuspegia

Guillermo Aguado de la Obra
InteRedeko Progama arloko Hezkuntza lerroaren parte da.

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Zaintzen Pedagogia hezkidetza-proposamen alternatiboa da, bizitzaren iraunkortasuna lortzea xede duena. Kontzeptu politikoa ere bada, modu kolektiboan identifikatzen eta eraikitzen delako, eta zalantzan jartzen duelako nagusi den eredua, bizitzari lehentasuna ematen baitio, kapitala metatzeko prozesuen gainetik. Honako ikuspegi hauek elikatzen dute proposamena: ekofeminismoak (ekologismoa eta feminismoa batzen ditu), giza eskubideek, munduko herritartasunak eta kulturartekotasunak.

Eraldatzeko xedea duenez, zaintzen Pedagogiak hezkuntza-prozesuak berrantolatzea dakar, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- Bizitza gure hezkuntza-jardueren ardatz bihurtzea, eta gure banakako erabakiak eta erabaki kolektiboak bizitzaren zaintzara bideratzea (zentzu guztietan), bizitza kaltetzen edo suntsitzen duten gauzetara bideratu beharrean.
- Zaintzen antolaketa soziala (kapitalista eta heteropatriarkala) aztertzea eta salatzea, bizitzari eusteko lanen ardura emakumeen gain utzi baitu (zaintzak feminizatzea).
- Gure gizarteetan zaintzen krisialdia bizi dugula aitortzea, pertsonek eta naturak behar dituzten zaintzak jasotzen dituztela bermatzeko, eta esplotazio-baldintzetan gauzatzen diren zaintza-kate globalak salatzea.
- “Zaintza-zorrak” aitortzea. Kontzeptu feminista da hori; aztertzen du zer erlazio dagoen pertsonek beren beharrak asetzeko jasotzen dituzten denboraren, afektuaren eta energiaren eta beste gizaki batzuen bizitzak aurrera egiten duela bermatzeko ematen dituztenen artean.
- Lehentasunak aldatzea, bizitza bihurtzeko ardatz; horrek sistema iraultzea dakar, hura errotik aldatzeko.
- Eredu “ego-zentrikoa” gainditzea eredu “eko-zentriko” bat lortzeko.


HEZKIDETZAKO PROPOSAMEN ALTERNATIBOA
BIDERATUA
N
E
O
S
BIZITZA REN JASANGARRITASUNA
AURKA
KAPITALAREN PRODUKZIOA eta PILAKETA
ZER DA?
ZAINTZEN PEDAGOGIA
IKUSPUNTUA
1 EKOFEMINISMOA
2 ESKUBIDEAK
3 HERRITARTASUN GLOBALA
4 KULTURARTEKOTASUNA
5 HOLISTIKOA
KRISIAK
KATE GLOBALAK
ZORRAK
GIZARTE ANTOLAKETA
ZAINTZEN
ZER PROPOSATZEN DU?
KONTZIENTZIA HARTU
ERALDATU
AITORTU eta SALATU
KAPITALISMO HETEROPATRIARKALARI KRITIKA
GAINDITU
ALDATU
MODELO EGO ZENTRIKOA
MODELO ECO ZENTRIKORA

Etika, herritartasuna eta giza eskubideak, zaintzen Pedagogiarako ekarpenak

Luz Elena Patarroyo López
Ikerketa Zentrua eta Herri Hezkuntza.
Bakearen aldeko Programa-CINEP/PPP-en parte da (Kolonbia).



Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Zaintzak dira ongizate publikoa eta bizitzaren iraunkortasuna lortzen laguntzen duten jarduera sozialak eta banakakoak. Zaintzek garrantzi handia ematen diote elkarrekiko mendekotasunari, erantzukizunkidetasunari eta gizakien zaurgarritasunari. Zaintza ez bidezkoei buruz hitz egiten dugunean esan nahi dugu erantzukizunak ez daudela modu orekatuan banatuta estatuen, merkatuen eta etxeen artean, bizitzari bidea ematen dioten lanen multzoari dagokionez, eta, horren ondorioz, lan horien gaineko ardura emakumeen gain uzten dela.

Beste alde batetik, herritartasunak pertsona guztiek dituzten eskubideei eta betebeharrei egiten die erreferentzia, inolako bereizkeriarik gabe, eta publikoa dena zaintzeko eta eraikitzeko nahi eta parte-hartze aktibo kontziente bat gauzatzeari. Tradizionalki, emakumeak bakarrik arduratu izan dira familia zaintzeaz, eta horrek beren bizi-proiekturako denbora eta erabakitzeko askatasuna mugatu die; funtsean, haien eskubideak osoki gauzatzeko aukera mugatu da, giza bizitzari eusten laguntzen duen lan horren ikusezintasunaren ondorioz. Ildo horretatik, gaztelaniazko “cUidadanía” kontzeptua sortu da -zaintzaren gizarte gisa azal genezake -, zaintza-lanak guztiaren ardatz bihurtzen dituena, eta pertsona guztiak zaurgarriak garela, elkarren beharra dugula eta zaintzaren ardura hartu behar dugula aitortzen duena. Zaintzaren gizarte hori benetan garatzeko, honako hauek egin behar dira:

- Merkatuak deszentralizatzea, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka agerian uzteko eta ezkutuko zaintzak identifikatzeko.
- Ideia kontsumistak eta materialistak apurtzea.
- Gizakiak beren buruarekin aski direla dioen kontzeptua baztertzea, eta gizakiok zaurgarriak garela eta elkar behar dugula aitortzea.

Esandakoaren haritik, zaintzen Pedagogia gauzatzeko, besteak zaintzeko jarduerak gauzatzen hasi behar dugu oso gazte garenetik, zaintzeko gaitasunak areagotzeko eta pertsonen garapen morala areagotzea lortzeko. Zaintzen Pedagogiaren xedea da pertsonen garapen osoa lortzea, nortasunaren osotasuna lantzeko. Beste helburu bat da pertsonen, herrien eta kulturen arteko elkartasuna lortzea. Baita ere, beren autonomia gainerakoen autonomiaren arabera adierazten duten pertsonaz osatutako muturreko demokrazia batera iristea. Eta, azkenik, helburu nagusietako bat da historikoki emakumeen gain utzi izan diren eginkizun sozialak berdintasunez banatzea.


ESTATUA
MERKATUA
ETXEAK
ARDUREN BANAKETA DESBERDINA
ZAINTZEN ARDURA
EMAKUMEENGAN
HERRITARTASUNETIK
KAPITALA vs. BIZITZA
GATAZKA SALATU
HANDIKERIA
ALDE BATERA UTZI
ELKARMENPEKOTASUNA
BESARKATU
KONTSUMO MATERIALISTAREKIN APURTU
EMAKUMEEK EGINDAKO
ZAINTZA + LANAK
ERDIGUNEAN JARRI
ZAINTZATASUNA
BERDINTASUNA
ESKUBIDEAK + BETEBEHARRAK
ZAINTZAK
ZAINTZEN PEDAGOGIAREKIN HARREMANA
1 ZAINTZA HARREMANAK SUSTATU
2 BERDINTASUNA DEFENDATU
3 AHIZPATASUNA BILATU
4 HEZKUNTZA eta ETIKA
5 PERTSONEN GARAPEN INTEGRALA
KONTZEPTU
HAVETAN ENFASIA
HARREMAN AUTONOMIA
GIZA ZAURGARRITASUNA
EKINTZA
SOZIAL eta INDIBIDUALAK
BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN ALDE

Ekonomia feminista bizitzari eusteko eta bizitza kudeatzeko

Mertxe Larrañaga
Euskal Herriko Unibertsitatearen irakaslea (UPV/EHU).

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Ekonomia feminista diziplina XX. mendearen bigarren erditik aurrera sortu zen, mendebaldeko ikerlarien lanari esker. Ekonomiatik eta feminismotik elikatzen da, eta diziplina anitzekoa da, beste diziplina batzuekin batera lan egiten baitu, hala nola soziologiarekin, politikarekin eta antropologiarekin. Hona hemen haren ekarpen garrantzitsuenetako batzuk: i) lanaren ikuspegi ekonomiko hutsa zalantzan jartzea, eta etxeko lanei, zaintza lanei eta lan boluntarioei balioa ematea; ii) zaintza-lanen alorreko esplotazioa ikusaraztea eta salatzea, eta horiek ekonomia formalean ezinbestekoak direla agerian uztea, fluxu ekonomikoak doitzen dituzten heinean; iii) sektore publikoak, komunitateak, enpresek eta ekonomia sozial eta solidarioko elkarteek zaintza-lanetan bete beharreko zereginak ikusaraztea.


Ekonomia feministaren esparruan landu den gogoeta nagusietako batek honako hau aztertzen du: zer erantzun publiko eman zaien zaintza-lanei emakumeek lanaldi osoko zaintzaile-paperak alde batera utzi dituztenean pixkanaka lan-merkatuan sartzeko. Ildo horretatik, herrialde batzuetan erantzun publiko bat eman da, eta areagotu egin da zaintza-zerbitzua (iparraldeko zenbait herrialdetan adibidez); baina, beste batzuetan, ez da erantzun publikorik eman, eta horrek ondorio larriak eragin ditu emakumeengan: lanaldi partzialeko lanpostuak hartzen dituzte, lanaldi bikoitza edo hirukoitza gauzatu behar izaten dute, eta, beste batzuetan, beste emakume batzuk kontratatu behar izaten dituzte zaintza-lanetarako.

Ikuspegi horretatik, ekonomia feministak beste borroka-ildo batzuk hasi, eta honako hauek salatu ditu: zaintzen kate globalak, gizonek lan horien gaineko ardurarik ez hartzea, eta emakumeek beren funtsezko eskubideak gauzatzea baldintzatzen duten beste zenbait gai, besteak beste, lan-segregazioa, bertikala (adibidez, “kristalezko sabaia” deritzonaren bidez) eta horizontala (emakumeak lanpostu feminizatuetan pilatzea), eta soldata-desberdintasuna.

Kritika horien aurrean, diziplina honek bizitzari eusten dioten jarduerei balioa emango dien eredu sozial berri bat aldarrikatzen du. Gainera, hezkuntzaren aldeko apustua egiten du, bizi-aukerak hobetzeko eta pertsonen potentzialtasunak lantzeko ezinbesteko bitartekoa den heinean.



1. LANAREN KONTZEPTUA
(EMPLEGUA VS. LANA)
2. LAN BEREIZKETA
+ DESBERDINTASUN SOZIALA
3. ERANTZUNKIDETASUN FALTA
4. ZAINTZEN KATE GLOBALAK
→ ERANTZUN PUBLIKOAREN FALTA
→ ZAINTZEN KRISIA IPARRALDEAN
→ GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA
→ UGALKETA KRISIA HEGOALDEAN




ZAINTZEN ETXEKO LANAK

MERKATARITZAKOAK EZ DIREN LANAK FLUXU EKONOMIKOA ESTUTU DUTE

ZAINTZEN LANEN ESPLOTAZIOA

LANAREN KONTZEPTUA

BORONDATEZKO LANA



Ekofeminismoa, zaintzen Pedagogiarentzako oinarri

Iratxe Palacín Garay
InteRed Euskal Herriko delegazio teknikaria.

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Errealitatea aztertzeko ikuspegi ekologista eta feminista batzen dituen pentsamendu - korronte eta mugimendu sozial bat da ekofeminismoa. Pertsonok gure artean eta naturarekin ditugun harreman-motak errotik eraldatzea du xede, eta, zapalketa-moduen ordez, lankidetza, elkarrekikotasuna eta elkarri laguntzea sustatzea. Historikoki, emakume ekologisten, bakezaleen eta feministen mugimenduek ordezkatu izan dute; adibidez, Indiako Chipko mugimenduak, Argentinako Maiatzeko Plazako Amek eta Nekazaritza Bideak.

Ezin da korronte ekofeminista bakar bat aipatu, egileak bezainbat baitaude. Honako hauek nabarmenduko ditugu: a) ekofeminismo esentzialista edo klasikoa: tekno-zientziak emakumeen gorputzetan eta osasunean dituen eraginak salatzen ditu; b) hegoaldeko ekofeminismoa edo espiritualista: gizakien eta natura osoaren arteko banaketa gainditzeko beharra aldarrikatzen du, gizartearen eta naturaren arteko ikuspegi holistiko baterako bidean; c) Latinoamerikako ekofeminismo espiritualista: justizia soziala ekojustiziarekin batera gauzatu behar dela dio; d) ekofeminismo konstruktibista: haren arabera, natura menderatzeko eta emakumeak menderatzeko logikak antzeko irizpideetan oinarritzen dira.

InteRedeko kideok bat gatoz ekofeminista konstruktibistekin, natura eta emakumeak menderatzeko logiken arteko alderaketarekin. Mederatzearen kultura hori Modernitatean sortu zen, garai historiko hartan zabaldu baitzen aurrerapenaren kontzeptua mugarik gabeko hazkunde ez iraunkorrarekin lotuta. Bizitzako geruza guztiak “pentsamolde duala” delakoaren inguruan antolatzen diren une honetan, gizartea aurkako pareetan banatzen da (“femeninoa” “maskulinoa” dikotomia), eta genero-rolen eraikuntza soziala sendotzen. Sistema kapitalista heteropatriarkalak genero-rolen banaketa hori baliatu du irauteko, lanaren sexukako banaketaren bidez.

Egoera horren aurrean, zaintzen Pedagogiak bat egiten du ekofeminismoarekin zaintzen eta ingurumenaren krisialdiaren salaketan, eta azpimarratzen dugu elkarren mendeko garela eta naturaren mendeko garela ez aitortzearekin lotuta daudela horiek. Halaber, zaintzen Pedagogiak bizitzari eustera bideratutako hezkuntza-sistema baten aldeko apustua egiten du.


ZER DA?
IKUSPUNTU FEMINISTA
IKUSPUNTU EKOLOGISTA
PENTSAMENDU KORRONTEA
BESTE MUGIMENDU SOZIALEKIN BATERATZEN DA
EKOFEMINISMOA
SALATZEN DU
DOMINAZIO KULTURALA
ERAGITEN DU
KRISIA
ZAINTZEN UKAPENA
(ELKAR) DEPENDENTZIA
INGURUMENAREN UKAPENA
(EKO) DEPENDENTZIA
ZAINTZEN PEDAGOGIAREKIN HARREMANA
GURE ARTEAN ETA NATURAREKIN HARREMANTZEKO DITUGUN MODUETAN ERALDAKETA
BILATZEN DU
BIZITZA ZENTRUAN JARRI
GAUR EGUNGO GARAPEN EREDUAREN ALTERNATIBAK
BILATU
SALATU
KRISIA < INGURUNE ZAINTZAK
ZAINTZAREN ESKUBIDEA ALDARRIKATU
ZAINTZEN LANEI BALIOA EMAN
AITORTU
(EKO INTER) DEPENDENTZIA

Ongi Bizitzea eta zaintzen Pedagogia

Víctor Quilaqueo G.
Sozialismoarako Politika Publikoen Zentruaren parte da (Guatemala).

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Ongi Bizitzearen kontzeptua Latinoamerikan sortu zen, herrialde andetarretako komunitate indigenen eta nekazarien mundu-ikuskeratik; munduko krisialdiaren aurrean beste aukera batzuk sortze aldera, ekoizpen- eta kontsumo-prozesu berriak aldarrikatzen ditu. Kritika egiten dio sistema kapitalistari eta merkatuaren mesedetan baliabide naturalez jabetzea ahalbidetu duten prozesu guztiei, eta horrek guztiak planetaren iraunkortasunerako arrisku larriak dakartzala salatzen du.

Esan daiteke Ongi Bizitzearen kontzeptua mundu-ikuskera andetarraren adierazpena dela, munduko eredu ekonomikoarekiko beste alternatiba batzuk proposatzen dituzten kulturarteko kontzeptu filosofikoekin eta politikoekin lotutakoa. Honako elementu hauek osatzen dute proposamena: i) kolektibitatea, pertsona bat defendatzea pertsona guztiak defendatzea dela ulertzen duelako; ii) beste etika bat eraikitzea, gizatiarragoak eta iraunkorragoak diren beste balio batzuk aitortzeko eta birfinkatzeko; iii) jakintzak deskolonizatzea; eta, azkenik, iv) elkarrizketarako zaletasuna.

Ongi Bizitzea eta zaintzen Pedagogia elkarri lotuta daudela erakusten duten elementu ugari daude; izan ere, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka agerian uzten eta salatzen dute biek, bizitza bihurtzen dute ardatz, guztion konpromiso etikoa den heinean, kulturarteko elkarrizketa sustatzen dute, eta ulertzen dute pedagogia iraunkorragoa izango den beste gizarte-mota bat eratzeko modua dela, gizarte horretan “zoriontsu izatea” izango delarik helburu nagusia.

Zentzu horretan, Ongi Bizitzeak eta zaintzen Pedagogiak hezkuntzaren ikuspegi holistikoa dute, hezkuntza jakintzen ondare komun berri bat sortzera bideratutako prozesutzat jotzen baitute. Testuinguru horretan, funtsezkoa da kulturarteko elkarrizketa sustatzea, mundu-ikuskera desberdinak ezagutzea lagungarria delako errealitate desberdinetan sortutako jakintzak barneratzeko, eta, horrela, jakintza berriak sortzeko.


SISTEMA KAPITALISTARI
KRÍTIKA
ERREKURTSO NATURALAREN JABETZEA MERKATUAREN ONURARENTZAT
PLANETAREN JASANGARRITASUNAREN AURKAKO ARRISKUAK
LATINO AMERIKETAKO
KOSMOBISIO
INDIGENAK + KANPESINOAK
LURRAREN BANAKETAN MUNDUKO ESKUALDE DESBERDINENA
NONDIK SORTZEN DA?
BIZITZE ONA
ZER DA?
KOSMOBISIO ANDINOAREN ADIERAZPENA. BESTE KONTZEPTU FILOSOFIKO eta POLITIKOAREKIN KULTURARTEKOTASUNEKO ELKARRIZKETAN MODELO EKONOMIKO GLOBALARI ALTERNATIBAK PROPOSATZEKO
ZAINTZEN PEDAGOGIAREKIN HARREMANA
ELEMENTUAK
BIZITZAREN JASANGARRITASUNA
BIZITZA ZENTRUAN JARTZEN DU
HEZKUNTZA PROZESU BEZALA
JAKINTZEN ONDARE KOMUNA
KULTURARTEKO ELKARRIZKETA
KAPITALA vs. BIZITZA GATAZKA EZAGUTZERA EMAN eta SALATZEN DU
ZORIONTSU IZATEA HELBURU DUEN PEDAGOGIA
BESTE ETIKA BATEN ERAIKUNTZA
JAKINTZEN DESKOLONIZAZIOA
ELKARRIZKETARA BIDERATUTAKO BOKAZIOA
KOLECTIBITATEA

Eskola-errealitatea eta zaintzen Pedagogia

Luz Elena Patarroyo López
Ikerketa Zentrua eta Herri Hezkuntza.
Bakearen aldeko Programa-CINEP/PPP-en parte da (Kolonbia).

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Izaki bizidunok eta natura elkarren mendekoak eta zaurgarriak garela aitortuta, hau da, gure bizitzak osoki gauzatzeko gainerakoak behar ditugula onartuta, egungo prozesu ekonomiko, sozial eta politiko neoliberal, kapitalista eta heteropatriarkalek elkarrekiko mendekotasun horri eragin diote. Alde batetik, desberdintasun soziala eta pobrezia sorrarazten dituztelako, eta, beste batetik, nor bere buruarekin aski delako ideia zabaltzen dutelako, gizakien izaeratik urrunduz.

Horrek bizitzako esparru guztietan ditu ondorioak; eskola-esparruan, esate baterako, prozesu horiek kulturaren ikuspegi androzentrikoa zabaltzen dute egiteko moduetan, metodologietan eta hezkuntza-sistemen funtzionamendu orokorrean.

Testuinguru horretan, premiazkoa da hezkuntza-proposamen berri bat abiaraztea - zaintzen Pedagogia - , bizitza ardatz bihurtuko duena, eta zaintza aukera etiko gisa hartuko duena, sistema alternatibo bidezkoagoa eta zuzenagoa sortzeko zaintzen jakitea beharrezkoa dela jota.

Hezkuntza-proposamen hori eskola-esparruan sartzeko, esan dugun eran, curriculum-edukiak, metodologiak eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak berregituratu beharko dira zenbait mailatan. Horrek esan nahi du gizonen eta emakumeen eguneroko harremanetan diskriminazioarekin eta berdintasun ezarekin lotutako gatazkak ikusarazi eta konpondu behar direla, genero-berdintasunaren printzipioan oinarrituta, besteak beste. Gainera, eskola-testuinguruan beste eragile batzuen parte-hartzea areagotu beharko da, hala nola komunitatearena, bai eta curriculuma eta hezkuntza-metodologiak malgutu ere, zaintzak haien printzipioetako bat izan behar duelarik.

Epe luzera, zaintzen Pedagogia barneratzeak bizitzarako gako diren gaitasunak lantzen lagunduko du, giza kapitala sorraraziko du, eta jarraibide soziokulturalak zaintzen logikarekin bat mobilizatzea sustatuko du.


ERAGITEN DU
• DESPAREKOTASUNA
• POBREZIA
• INDARKERIA
• GUDAK
IKUSPUNTU ANDROZENTRIKOA ESKOLAN
• ARAUAK
• BALIOAK
• PENTSATZEKO MODUAK
• EGITURA SOZIALAK
UKAPENA
(ELKAR) (EKO) MENPEKOTASUNA
1 FEMINISMOA/INTERSEKZIONALITATEA
2 GENEROA
3 GATAZKARAKO eta DESBERDINTASUNERAKO HEZKUNTZA
4 SLOW EDUCATION
5 MALGUTASUNA < KURRIKULUMAK METODOLOGIAK
6 ZAINTZEN IRAULTZAREN JABETZEA
ITURRIAK
ESKOLAKO PARADIGMA BERRIA
ZAINTZEN PEDAGOGIA
POSTULATUAK
1) ZAINTZEN JAKITEA BEHARREZKOA DA
ESTRATEGIAK BEHAR DIRA
2) ZAINTZEN ETIKA + JUSTIZIAREN BULTZATU
AUKERA ETIKOA
GIZA ARDURA
ZEIN EKARPEN EGITEN DIO HEZKUNTZA ESPARRUARI?
ZAINTZA BALIO SOZIALA MODUAN
DEMOKRAZIA GEHIAGO
ZAINTZEN LOGIKAN MUGITZEN DEN GIZA KAPITALA SORTZEN DU

Eskoletan zaintzen Pedagogia lantzeko metodologiak hautatzeko zenbait irizpide

Rosa María Mujica
Fe y Alegría 44 Quisquipanchi, Cusco (Perú)
Sarearen landa eskoletan genero aholkularia.

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Zaintzen Pedagogia hezkuntza-esparruan sartzeko garaian, bi gai nagusi hartu behar dira kontuan.

Hasteko, gogoeta-prozesu autokritiko bat sustatu behar da zerikusia duten eragile guztien artean, honako galdera hauei erantzuteko: Zer balio sustatzen dira eskola-testuinguruan? Jarduera pedagogikoek sustatu ala desagerrarazi egiten dituzte bertikaltasuna eta androzentrismoa? Erantzuten al zaie ikasleen beharrei? Berdintasuna sustatzen al da? Amaierako xede nagusia da jardunbideak berraztertzea eta hezkuntza-ekintza birbideratzea.

Bigarren, jardunbideak eta jakintzak birbideratu behar dira balio gizatiarrak lantzen dituen hezkuntzaren ikuskera batekin bat etor daitezen. Zehaztuz, honako hauek sustatuko dituzten hezkuntza-prozesuak abiarazi behar dira: pertsonen harremanetarako garapena (gainerakoekin eta naturarekin harreman garbiak eta positiboak izaten ikasi), garapen kognitiboa (ikaskuntza-prozesuaren protagonista izaten ikasi) eta garapen emozionala (gainerako pertsonekin harremanak izaten ikasi).

Horretarako, metodologikoki, ikasleen garapen afektiboa, intelektuala eta psikomotorra ahalbidetuko dituzten estrategiak landu behar dira, metodologia ludikoak diseinatuz eta ikaskuntza aktiboa eta bizipenetan oinarritutakoa sustatuz. Baina ikasleekin egiten den lan espezifikoaz harago, garrantzitsua da elkarrizketarako eta elkartrukerako espazioak sortzea, hezitzaileek beren jardunbideak eta egiteko moduak berraztertu ditzaten noizbehinka, dagokien testuingurura eta ikasleen beharretara egokitzeko etengabe.


LUDIKOA
AUTOKRITIKA
BIZIPENEKOA
KOLEKTIBOA
PARTE HARTZAILEA
METODOLOGIA
HEZKUNTZA
GARAPEN EMOZIONALA
HARREMAN GARAPENA
GARAPEN KOGNITIBOA
ZAINTZEN PEDAGOGIA
ESKOLAN TXERTATU
HELBURUA
HEZKUNTZA PRAKTIKAK BERRIKUSI
HEZKUNTZA EKINTZAREN XEDEA EZAGUTZEKO
BALIOAK SUSTATZEN DITU
PRAKTIKA PEDAGOGIKOEN ANDROZENTRISMO BERTIKALTASUNA EZABATZEN DU
GARAPEN INTEGRALA SUSTATZEN DA, GENERO DESBERDINTASUNIK GABE eta ZAINTZEN IRAULTZA ONARTUZ
IKASLERIAREN BEHARREI ERANTZUTEN ZAIE

Arrasateko Arizmendi Ikastolako esperientziaren sistematizazioa: “Konfiantzaren pedagogia”

Laura Modonato
Aholkulari independentea
Kulturartekotasuna, Genero eta Garapenean.

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Dokumentalak hemen ikusi
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/dokumentalak


Arizmendi Ikastolan gauzatzen duten Konfiantzaren pedagogia laguntza eta ikasleen potentzialtasunak garatzeko aukera ematen duen hezkuntza-eredu bat da. Konfiantzan oinarritzen da - nork bere buruarengan, gainerako pertsonengan eta ingurunean duen konfiantza -, kudeaketaren bidezko garapen pertsonalerako eta eraldaketa sozialerako.

Hezkuntza-eredu hori finkatzean, premisatzat aitortu dute egungo eskolak ez diela erantzuten ikasleen beharrei, batez ere desberdintasun sozialak eta giza izaeraren aurkakoak diren balioak nagusi dituen testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko honetan. Kezka horretatik abiatuta, eztabaidagune bat sortu zuten hezkuntza-komunitateko zenbait kideren artean, aztertzeko nola aldatu beharko lukeen eskolak ikasleek egungo munduan dituzten beharrei erantzuteko. Gerora, prestakuntza-prozesu bat egin zuten irakasleekin, eta, 2009an, berrikuntza pedagogikoko prozesua abiarazi zuten haur-hezkuntzako geletan. 2013an, beste urrats bat egin zuten, Konfiantzaren pedagogiaren esparru teorikoa landu eta hezkuntza-maila guztietarako proiektua diseinatu baitzuten.

Ikuspegi teoriko batetik, Konfiantzaren pedagogia zenbait zientziaz elikatzen da, honako hauez besteak beste: psikologia humanistaz, soziokonstruktibismoaz, psikologia kognitiboaz, etologiaz eta neurozientziez. Zientzia horien ekarpenean oinarrituta, ikasleekin egiten den esku-hartzerako hiru esparru diseinatu dira:

1. Pertsonen zaintzarako eta garapenerako baldintzak
2. Testuinguru-baldintzak
3. Irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baldintzak

Esku-hartzerako hiru aterki horien babespean, Arizmendi Ikastola berrikuntza pedagogikoko prozesu sakon batean murgildu da; horri jarraikiz, espazio fisikoetan berregituraketa arkitektonikoa egin da, eduki didaktikoak aldatu dira eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodologiak egokitu dira.


KONFIANTZAN
NORBERARENA
BESTE PERTSONENA
INGURUARENA
JARTZEN DU FOKOA
GARAPENA eta GIZARTE ERALDAKETARAKO
AUTOGESTIOAren BIDEZ
ZER DA?
1 2009 NOLA ALDATU BEHAR DA ESKOLA
2 2013 MARKO TEORIKOA
3 SORMEN KOMUNITATEARI FORMAZIOA
4 PROIEKTUEN DISEINUA
AURREKARIAK
KONFIDANTZAREN PEDAGOGIA
MARKO TEORIKOA
- PSIKOLOGIA KOGNITIBOA
- PSIKOLOGIA HUMANISTA
- SOZIOKONSTRUKTIBISMOA
- ETOLOGIA
- NEUROZIENTZIA
ESKU HARTZE EREMUAK
BALDINTZAK
1 PERTSONEN ZAINTZA eta GARAPENERAKO
2 TESTUINGURUKOAK
3 IRAKASKUNTZA eta IKASKUNTZARAKO

Gasteizko Ramón Bajo Eskola Publikoko esperientziaren sistematizazioa

Laura Modonato
Aholkulari independentea
Kulturartekotasuna, Genero eta Garapenean.


Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Dokumentalak hemen ikusi
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/dokumentalak

Gasteizko Ramón Bajo Eskola Publikoak 2014an abiarazi zuen berrikuntza pedagogikoko prozesua, ikastetxe osoan berregituraketa arkitektonikoak eta metodologikoak egitea ekarri duena. Berrikuntza pedagogikoko prozesuak Europa iparraldeko hezkuntza-eredu bat hartu du oinarri, eta antzekotasun handia du gaur egun Arrasateko Arizmendi Ikastolan finkatzen ari diren eredu pedagogikoarekin. Ikastetxea kalitatezko eskola publiko gisa ezagutarazteko beharrak bultzatuta erabaki zuten eredu pedagogikoa berritzea. Hori horrela, helburu nagusietako bat izan da ikasleen hazkuntza eta garapena zaintzen dituen hezkuntza-eredu bat sustatzea, haien ikaskuntza bultzatuz esperimentazioan eta haien beharrak asetzean oinarritutako metodologia ludikoen bidez.

Metodologiaren ikuspegitik, ikasleen artean bultzatu nahi dituzten gaitasun batzuk hautatu dituzte, eta espazio zabal batean, jolasaren bidez gaitasun horiek lantzeko aukera ematen duten “mikro-espazioak” sortu dituzte. Haurrek jarduerak txandakatzeko beharra dutela kontuan hartuta, eguneroko errutina bat sortu dute, ikasleek hedatzeko (jolas librea, esperimentazioa, etab.) eta biltzeko (jolastu ondoren erlaxatzea eta irakasleekin eta gainerako ikasleekin haien ikaskuntzei buruz hitz egitea) aukera izan dezaten.

Berrikuntza pedagogikoko prozesu horren baitan, espazioen berregituraketa arkitektonikoa ere gauzatu dute. Haur Hezkuntzako espazioa, hiru urtetik bost urtera bitarteko ikasleena, bost mikro-espaziotan edo txokotan banatutako gune garbi bat da. Mikro-espazio horietan zenbait instalazio eta material daude, zenbait potentzialtasun lantzeko aukera ematen dutenak (artistikoak, sinbolikoak, motorrak, etab.). Bi urteko haurrek beren espazioa dute, Haur Hezkuntzako gainerako ikasleengandik bananduta. Horien espazioan hondar-kutxa, arbela, lasai egoteko espazioa, espazio artistikoa, txirrista eta arrapala daude.


1 FONDOAK BILATU
2 PROIEKTUA DEFINITU
3 IKASLEEN BEHARREKIN ERRESPETUZKOA DEN HEZKUNTZA EREDUA BULTZATU
4 ESKOLA PUBLIKOA AGERIAN JARRI
5 IKASTETXEAREN FUNTZIO GEHIAGOZ HORITU
AURREKARIAK
1 BERREGITURAKETA METODOLOGIKOA
2 LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT FORMAZIOA
3 HAUR HEZKUNTZAKO IKASGELETAN OBRAK
ESKU HARTZEA
IKUSPUNTU TEORIKOA
IKASLEEN BEHARREN ASETZEA
OINARRIZKOAK
HARREMANEZKOAK
IKASKUNTZAZKOAK
ESKOLAREN BERREGITURAKETA ARKITEKTONIKO eta METODOLOGIKOA
ESPAZIOAREN ANTOLAKETA
(2 URTERARTE)
(3tik 5 URTERA)
ESPAZIOAK
PIZARRA
NDAR EREMUA
ARRAPALA
ARTISTIKOA
TXIRRISTA
BARNERA BILTZEA
ESPERIMENTAZIOA
ERABILERA ANITZEKOA
ERAIKUNTZA
SINBOLIKOA
ARTISTIKOA
LIBURUTEGIA
METODOLOGIA
LUDIKOA
ESPAZIOAREN BANAKETA
ESPAZIO ZABALAK
ESPAZIO TXIKIAK
ERRUTINAK
HEDAPENA
BARNERA BILTZEA

Markinako Eskola Publikoko jangelako autogestio-esperientziaren sistematizazioa

Laura Modonato
Aholkulari independentea
Kulturartekotasuna, Genero eta Garapenean.



Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados




Dokumentalak hemen ikusi
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/dokumentalak

Markinako Eskola Publikoko jangela autogestionatzeko proiektua 2005ean sortu zen ikastetxeko familia batzuen eskutik, baina 2013an zehaztu zen, Eusko Jaurlaritzak sustatutako eskola-jangelak autogestionatzeko programa pilotuan parte hartzea erabaki zutenean. Proiektua zenbait fasetan abiarazi zen: hasteko, "jangela-taldea" izeneko lan-batzorde bat eratu zuten ikastetxeko familiek eta irakasleek; ondoren, proiektua idatzi zuten, zenbait erakunderen laguntza baliatuz ikasleen elikadura-beharrak aztertzeko - oso lagungarria izan zen hori eguneroko eta asteroko menua finkatzeko - ; azkenik, bertako ekoizleekin harremanetan jarri ziren produktuak lortzeko (haragia, arraina, barazkiak, etab.).

Aldi berean, zenbait kolektibori zuzendutako esku-hartzea egin zen. Alde batetik, sentsibilizazio-ekintzak egin zituzten ikasleekin elikadura-beharrei eta modu osasungarrian elikatzeak duen garrantziari buruzko kontzientzia har zezaten; herriko baratze ekologikora bisita egin zuten, baita ere, lurrak zer eskaintzen digun eta haren fruituak lortzeko nola zaindu behar den ikasteko. Beste alde batetik, familiei zuzendutako zenbait jardunaldi antolatu zituzten proiektua ezagutu zezaten, eta jakin zezaten jangelaren autogestioak eragin positiboa izango zuela seme-alaben elikaduran. Jangela autogestionatuaren ezarpenaren lehenengo fasea ebaluatzeko eskaera ere egin zieten. Azkenik, ikastetxeko irakasleekin lan egin zuten, eta bereziki sukaldeko langileekin (sukaldariak eta jangelako zaindariak), prestatzeko metodoak eta osagaiak adosteko, eta, horrela, proiektuaren bideragarritasuna ebaluatzeko haiekin batera.

Ikastetxeak muga askori aurre egin behar izan die prozesu honetan (muga ekonomikoak, osasunaren alorrekoak, etab.), baina, zalantzarik gabe, gaur egun jangelaren autogestioa errealitate nabaria da ikastetxean, eta finkatutako helburuak lortu dituzte.


1 2005 FAMILIEN PROPOSAMENA
2 2013 JANTOKI AUTOGESTIONATUAREN PROGRAMA PILOTOAREN HASIERA (EUSKO JAURLARITZA)
AURREKARIAK
HELBURUAK
BERTAKO MERKATARITZA SUSTATU
IKASLEARI KALITATEZKO JANARIA ESKAINI
LANDA EREMUA GARATU
JANTOKI AUTOGESTIONATUA
MUGAK
SANITARIOAK
EKONOMIKOAK
EKOIZLEEN ERREALITATEEKIN LOTUAK
ESKU HARTZEA
1 IKASLEAK
"25 gr AZUKRE" MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK
HERRIKO BARATZA EKOLOGIKOEN BISITA
2 FAMILIAK
BATERATZE ETA INFORMAZIO JARDUNALDIA
JANTOKIAREN EBALUAZIOA
3 JANTOKIKO PROFESIONALAK
NEGOZIAZIO PROZEZUA
SUKALDARIAK
ZAINTZAILEAK

Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoko hezkidetza-esperientziaren sistematizazioa

Laura Modonato
Aholkulari independentea
Kulturartekotasuna, Genero eta Garapenean.


Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoan Hezkidetzaren alorrean gauzatutako esperientzia ikasgeletan ikasleen artean sortzen ziren gatazkaren ondorioz sortu zen. Arazo hori zela-eta, ikastetxeko irakasleek jakin nahi izan zuten zerk eragiten zituen gatazka horiek, hau da, nondik sortzen ziren. Ikusi zuten gatazken jatorrian gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak zeudela, eta sexuekin lotutako berdintasun eza. Prozesu horrekin batera, ikastetxeko espazioak aztertu zituzten, eta ikusi zuten atsedenaldian futbolean jokatzen zuten ikasle talde txiki batek hartzen zuela jolastokia, eta han sortzen ziren dinamikek eta jarrerek zenbait motatako gatazkak eragiten zituztela.

Informazio hori guztia kontuan hartuta, eskolak hezkidetzarekiko oso konpromiso sendoa hartu du, eta ikastetxeko eragileen artean - ikasleak, familiak eta irakasleak - bizikidetza baketsua sustatzeko ezinbestekotzat jotzen den hezkuntza-proposamen bat landu dute.

Ikastetxe horretan hezkidetzaren alorrean egindako lehenengo esku-hartzea ikasleen eta haien familien beharrei eta kezkei hitza emateko espazioak sortzea izan da, eta, horri esker, proposamena haien beharretara egokitu da. Espazio horietan, gainera, genero-berdintasunaren alorrean finkatutako jarduerak antolatu eta jarraipena egiten zaie taldean. Halaber, irakasleen etengabeko prestakuntza sustatzen da, elkartrukerako sortutako espazioen bidez, eta mankomunitatearekin ere harremanetan egoten dira, lurraldean antolatzen diren proiektuetan parte hartzen baitute. Edukiak lantzeko, oroipen-egunei buruzko jarduerak egiten dira, eta talde-kohesioa eta emozioak lantzeko jarduerak gauzatzen, metodologia ludikoen bidez.

Esku-hartzearen emaitzak agerikoak dira, ikasleen autonomia hobetu egin delako, eta nesken eta mutilen arteko harremanak areagotu egin direlako, bai eta adin desberdinetako bi sexuetako ikasleen artekoak ere.


AURREKARIAK
1 ESKOLA ESPAZIOKO ANALISIA (ESKOLAKO PATIOA BEREZIKI DESPAREKOA)
2 HAUSNARKETA ZER DAGO GATAZKEN ATZEAN? (BOTERE HARREMANAK)
HEZKIDETZA
ESKU HARTZEA
1 HELBURUA: HEZKUNTZA KOMUNITATEAN ELKARBIZITZA SUSTATU
2 PARTE HARTZE AKTIBOA
FAMILIA
IRAKASLERIA
IKASLERIA
ERRONKAK
ESKOLA INSTITUZIOKO ZAILTASUNA GIZARTE ERALDAKETARAKO PROZESUEN BURU IZATEKO
METODOLOGIA
☆ SORRERA → IKASLERIAREN BEHARRAK
☆ LANTZEN DIRA
TALDE KOHESIOA
EMOZIOAK
JOLASA eta EZTABAIDAREN BIDEZ
☆ EKINTZAK "... REN EGUNA"
☆ ESPAZIOAK
FORMAZIOA
HAUSNARKETA
IRAKASLERIARENTZAT
☆ MANKOMUNITATEKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZE GEHIAGO
EMAITZAK
JARRERETAN ALDAKETAK
IKASLERIAREN AUTONOMIA GEHIAGO
INTERRELAZIO GEHIAGO ADIN DESBERDINETAKO NESKATO eta MUTIKOEN ARTEAN

Berdintasunaren Alde Elkartutako Gazteen (BAEG) Mugimendua. Zaintzen Pedagogiaren esperientzia baten sistematizazioa. Toscana Lisboa Eskola - Bogotá (Kolonbia)

Luz Elena Patarroyo
Ikerketa Zentrua eta Herri Hezkuntza.
Bakearen aldeko Programa-CINEP/PPP-en parte da (Kolonbia).

Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Dokumentalak hemen ikusi
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/dokumentalak

Bogotáko Toscana Lisboa Eskolan 2012an hasi ziren esku-hartze hori gauzatzen, eta oraindik ere martxan jarraitzen du 2017an. Helburu nagusia da bereziki kezkagarria den egoera bati erantzuna ematea; izan ere, neskek eskola uzten dute erdi-mailako hezkuntzako 11. mailari iritsi baino lehen. Egoera hori, alde batetik, amatasun goiztiarrarekin dago lotuta, eta, beste batetik, neska horiek beren gain hartu behar izaten dituzten zaintza- eta familia-ardurekin.

Horri aurre egiteko, 9. eta 10. mailetako gazteei zuzendutako esku-hartze bat diseinatu zuten, genero-eraikuntzari eta hark emakumeengan eta gizonengan dituen eragin desberdinei buruzko gogoeta eragiteko, eta desberdintasun-egoera hori sustatzen duten jarduera kulturalak eraldatzen hasteko. Esku-hartze hori bigarren eta erdi-mailako hezkuntzetako maila guztietara hedatu zen proiektuaren bigarren urtean.

Esku-hartzearen emaitzetako bat izan da Berdintasunaren Alde Elkartutako Gazteen (BAEG) Mugimendua sortu dela, parekideekiko jarrerak aldatzeko gogoeta eta eraldaketa dinamizatzen duten nerabeek eta gazteek dinamizatutakoa. Lanaren sexukako banaketak dakartzan ondorioei buruz gogoeta sustatzen ere lagundu du, eta gai horrek neska haurren eta nerabeen bizi-proiektuari ez liokeela eragin behar ohartarazten.

BAEG mugimenduari buruz azpimarratu behar da haren xede nagusia dela sexismorik ez duen eta genero-ikuspegia duen kultura bat sustatzea hezkuntza-komunitatean, neska haurren, nerabeen eta emakumeen eskubideak bermatzearekin konprometitutakoa, eta genero-indarkeriaren modu guztiak baztertzen dituena, bizikidetza baketsu baterako ardatz den heinean.


1 EMAKUMEAK
6. MAILAN SARTZEN DIRA
EZ DIRA 11. MAILARA IRISTEN
ARRAZOIAK
HAURDUNALDI GOIZTIARRAK
"EMAKUME IZATEKO" MODU BALIAGARRIA EMAKUME - AMA
NESKATOAK eta NERABEAK FAMILIA eta ZAINTZA ARDURAREN ZARAMA DARAMATE
2 GARATUTAKO PROIEKTUA
NOIZTIK
2012 - 2015
NON
TOSCANA ESKOLA
AURREKARIAK
GAZTEAK BERDINTASUNAREN ALDE
ESKU HARTZEA
"BERDINTASUNERAKO BIDEAK SORTZEN"
9. eta 10. MAILAKO
GAZTEAK SENTSIBILIZATU
1 DESPAREKOTASUNA SUSTATZEN DUTEN PRAKTIKA KULTURALAK ERALDATU
2 GENERO ERAIKUNTZAREN BURUZKO HAUSNARKETA SUSTATU
EMAITZAK
YUPI MUGIMENDUA NESKATO eta NERABEZATOENGANDIK OSATUA
1º SENTSIBILAZIOA
2º AHALDUNTZEA
3º MOBILIZAZIOA eta HEDAPENA
ERREFLEXIOA BULTZATU DA
AMATASUNETIK HARATAGO BIZITZA PROIEKTUA
BIZITZA SEXUALA eta GENERO IDENTITATEA

Bizitza Komunitateak. EPRODEPek haurrekin, nerabeekin eta gazteekin gauzatzen dituen hazkuntza pertsonalerako lantegien esperientzia

Deimy Ventura
InteRed Guatemalako bulegoko koordinatzailea.


Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Dokumentalak hemen ikusi
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/dokumentalak

"Bizitza Komunitateak" proiektua Ciudad Quetzal hirian gauzatzen da, Guatemalako Hiria sektorean. Inguru horretan, indarkeria- eta pobrezia-indizeak oso altuak dira, eta hezkuntza formalerako sarbidea oso mugatua da; hori horrela, haurrak eta gazteak oso goiz hasten dira lanean, baldintza eskasetan eta zaurgarritasun-egoera larrietan.

Testuinguru horretan, EPRODEP elkarteak (Estudios y Proyectos de Esfuerzo Popular) eta Hezkuntza Esperimentaleko eta Alternatiboko Zentroak osasun mentalaren alorreko esku-hartze bat abiarazi dute indarkeriaren eta gerren testuinguru horretan. Horretarako, hazkuntza pertsonaleko lantegiak antolatzen dituzte, dinamika introspektiboetan, erlaxazio gidatuetan eta jarduera artistikoetan oinarritutakoak, ikasle nerabeentzat eta irakasleentzat. Lantegi horietan esperientzia traumatikoen bi alderdi lantzen dira, mingarria dena eta horrelako esperientzia bat bizi izanak dakarren hazkunde-potentzialtasuna. Lantegiak astero egiten dira.

Gaur egun, esku-hartzearen eragina agerikoa da zenbait ikuspegitatik. Nerabeen artean indarkeria murriztu egin da, hobetu egin da haien autoestimua, eta harreman garbiagoak eta sakonagoak izaten hasi dira. Gainera, Giza Eskubideen inguruan egindako lanari esker indarkeria-egoerak salatzeko ahalmena areagotu da. Maila pertsonalean, aldaketa nabarmenak gertatu dira pertsona hartzaileengan, norberaren historia hobeki ezagutzen dutelako, eta orain norberaren potentzialtasunei buruzko kontzientzia handiagoa dutelako. Irakasleek, berriz, esku-hartze horri esker, lehen ezkutuan zeuden edo ikusezinezko ziren indarkeria-egoerak identifikatzeko tresnak barneratu dituzte.


POBREZIA
HAURTZAROA eta NERABEZAROAN LANEAN HASTEN DIRA SOLDATA BAXUEKIN
EZ DAUDE JOLASTEKO ESPAZIOAK
HAURTZAROA eta NERABEZAROAKO KALITATEZKO HEZKUNTZA FORMALERA SARBIDE MUGATUA
QUETZAL HIRIA
INDARKERIA HANDIENEKO GUATEMALAKO SEKTOREA
1976
36 URTEKO GUDA ZIBILA LEKUALDATZEAK
GUATEMALAKO HIRIA
25 HIZKUNTZA DESBERDIN
ASENTAMENTU PREKARIOAK
INDARKERIA ALTUA
TESTUINGURUA
BIZITZA KOMUNITATEAK EPRODEP
EMAITZAK
1 ELKARREN ARTEKO INDARKERIAREKIN MURRIZKETA
2 IRAKASLERIA: ISILEKO eta EZKUTUKO EGOERAK EZAGUTZERA EMATEA
3 AGRESIBITATEAREN MURRIZKETA
4 INDARKERIA EGOERAK SALATZEKO AHALMENA
5 AUTOEZAGUTZAREN INGURUKO ALDAKETAK (AUTOESTIMAREN HOBETZEA)
ESKU HARTZEA
METODOLOGIA
→ DINAMIKA INTROSPEKTIBOAK
→ ERLAXAZIO GIDATUAK
→ DANTZA
→ JOLASAK
→ MARRAZKETA - PINTURA
ASTEAN 2-3 ALDIZ LANTZEN DIRA
↳ EMOZIOAK
↳ GIZA ESKUBIDEAK
GUDA eta BIOLENTZIAREN TRAUMAK KUDEATZEKO OSASUN MENTALA
NERABEZARO eta IRAKASLERIARENTZAT HAZKUNDE PERTSONALEKO TAILERRAK
HELBURUA: NORBERE BURUA EZAGUTZEA, BERTUTE eta GABEZIEKIN, NORBERA NAHI DUENA IZATEKO
ZAURGARRITASUN HANDIENA DUTEN GAZTEEKIN LANEAN
LANTZEN DIREN ASPEKTUAK
↳ MINGARRIAK
↳ AHALMENEZKOAK

Neskak garrantzitsuak gara. Cuzco departamenduko Quispicanchi probintziako (Peru) Landa Eskoletako lan-esperientzia

Rosa María Mujica
Fe y Alegría 44 Quisquipanchi, Cuzco (Peru)
Sarearen landa eskoletan genero aholkularia.


Testu osoa hemen
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados

Dokumentalak hemen ikusi
www.intered.org/pedagogiadeloscuidados/dokumentalak

Landa Eskolen Sarea Peruko Cuzco departamenduko Quispicanchi probintziako 30 eskolatan gauzatzen den hezkuntza-proiektua da. Pobreziak eta indarkeriak jotako eremua da, analfabetismo-maila altuak dituena; han, populazioaren %60k ez du osasun-zerbitzuen estaldurarik.

Testuinguru horretan, proiektuak 30 ikastetxe horiek dauden komunitateetako ikasleekin, familiekin eta emakume buruzagiekin lan egiten du. Xedea da pertsona bakoitzaren potentzialtasunak lantzea. Horretarako, talde-dinamiken eta lantegien bidez, genero-berdintasuna sustatzeko, autoestimua hobetzeko eta sexualitate sanoa lortzeko lan egiten dute, eta indarkeria-modu guztiak baztertzen dituzte.

Orain arte, proiektu honen emaitzetako batzuk izan dira ikasleek ikasteko eta irakurtzeko ahalmena hobetu dutela, hobeki dakitela beren giza eskubideak zein diren, eta eskubide horiek urratzen direnean erantzuteko tresna gehiago dituztela. Curriculumari dagokionez, ikaskuntza-prozesuei laguntzeko eduki artistikoak gehitu dira, kantua eta dantza adibidez, eta horrek ikasgeletako parte-hartzea eta elkartrukea areagotzea ekarri du. Gainera, kulturarteko ikaskuntza-proposamen elebiduna landu da. Azkenik, esku-hartzearen bidez, komunitateetan buruzagi-papera duten emakumeen kopurua handitu da, eta murriztu egin dira indarkeria-indizeak, bai eskoletan, bai eta etxeetan ere.


CUSCOko
QUISPICANCHI
PROBINTZIA
POBREZIA
ANALFABETISMOA
BIZTANLERIAREN %60A
LAGUNTZA MEDIKURIK GABE
TESTUINGURUA
LANDA ESKOLEN SAREA
PROIEKTUA
LANA
30 ESKOLETAN
IKASLERIAREKIN
FAMILIEKIN
KOMUNITATEKO BURUZAGIEKIN
HELBURUA: PERTSONA BAKOITZAREN AHALMENA GARATU
ESKU HARTZEAK BIDERATUAK
GENERO EKITATEA
INDARKERIA EZA
AUTOESTIMAREN HOBETZEA
SEXUALITATEA GARATZEA
METODOLOGIAK
JOLASA
JOLASA DINAMIKAK
TALDE LANA
ERAGINA
PARTE HARTZE GEHIAGO
IKASKETA BERBALORATU
ADIERAZLEEN MURRIZKETA
KOMUNITATEEN PARTETIK ARDURA KARGUEN ONARPENA
INTERKULTURALITATEA ELEBIDUNA
EDUKI ARTISTIKOEN ERANSKETA
GIZA ESKUBIDEEN EZAGUTZA
IKASKETA eta IRAKURKETAN HOBEKUNTZA

Zaintzen Pedagogia eraikitzeko bide komunak

Artikulu teorikoetan eta esperientzia praktikoetan azaldutakoa kontuan hartuta, zaintzen Pedagogia bultzatzeko bide komun batzuk finka ditzakegu:

1. **Bizitza bihurtzea banakako erabakien eta erabaki sozialen ardatz**. Hori izango litzateke sistema politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta, beraz, hezkuntza-sistema berri bat egituratzeko jarraibidea; onartu egin behar da izaki bizidunen bizitza mugatua dela, eta elkarrekiko eta naturarekiko mendekotasuna dugula.

2. **Gure hezkuntza-jardueren bidez eredu kapitalista heteropatriarkala zalantzan jartzea**. Bizitzaren eta kapitalaren arteko gatazka agerian jarri behar da, eta gizakien bizitza eta natura interes ekonomiko hutsen eta pertsona gutxi batzuen ("aberatsak, gero eta aberatsagoak gero eta pobreagoak diren pobreen kontura") mesedetan ustiatzen dituzten dinamika sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak salatu behar dira. Gainera, agerian utzi behar dira sistema horrek sorrarazitako krisiak - ingurumen-krisia, krisi ekonomikoa, balioen krisia eta abar -, ekintza soziala sistema bidezkoagoetarantz bideratzeko.

3. **Hezkuntza-helburuen eta -jardueren azterketa sakona egitea.** Ikusi behar da horiek zertan laguntzen diguten pertsonen garapen osorako eta haien beharrak asetzeko bidean.

4. **Curriculum-edukiak berraztertzea eta egokitzea**, esparru akademiko hutsetik harago doazen jakintzak sustatzeko.

5. **Ekonomia feministak, ekofeminismoak, Ongi Bizitzeak eta antzeko beste diziplina batzuen ekarpenak aitortzea**, pertsonen eta naturaren zaintza-beharrei erantzuteko gaitasuna izango duten sistema berriak identifikatu ahal izateko.

6. **Genero-ikuspegia hezkuntza-esparruan sartzeko berrazterketak eta eztabaidak egitea**. Emakumeek eta gizonek eskubide eta erantzukizun berak izango dituzten imajinario kolektibo berri bat sortu behar da.

7. **Zalantzan jartzea genero-desberdintasunak, oro har, eta lanaren sexukako banaketa, bereziki, eta horiek guztiak ikusaraztea**. Berdintasunean oinarritutako esperientzia eta egiteko modu berriak aurkitu behar dira, eta estatuek, komunitateek eta pertsona guztiek zaintzen gaineko ardura dutela aldarrikatu behar da.

8. **Pertsonek, estatuek eta enpresek** gainerako pertsonak eta ingurua eta natura zaintzeko **ardura dutela aldarrikatzea**.

9. **Giza Eskubideen eta lur-eskubideen balio eraldatzailea berreskuratzea**, pertsona guztientzat, eta emakumeentzat eta neskentzat bereziki, eskubide horiek errespetatutako direla bermatuko duen herritartasun-eredu berri bat sustatzeko.

10. **Kulturarteko hezkuntza eta herrien eta gizarte anitzen arteko elkarrizketa sustatzea**, ikaskuntza eta elkartruke gisa. Jatorrizko herriek dituzten mundu-ikuskerak berreskuratzea balio handiko estrategia da, homogeneizazio kulturala kolokan jartzen eta giza aniztasunaren errespetua eta balioa bultzatzen dituen heinean.

11. **Ingurumen-hezkuntza sustatzea**. Kontsumo arduratsuko jarduerak bultzatu behar dira, eta populazio guztia sentsibilizatu behar da natura zaintzeko beharrari buruz, azken batean gure buruak zaintzea baita hori.

12. **Era askotako ikusmoldeak eta iritziak daudela kontuan hartzen duen hezkuntza-ikuspegi berri bat eraikitzea**, androzentrismoa gainditzeko eta herritartasun global bat eraikitzen jarduteko.

13. **Giza aniztasuna onartzea aldaera guztietan**, eta kulturarteko prozesuak sustatzea.


14. **Irakasleen egungo papera zalantzan jartzea**. Laguntzaile eta bideratzaile izan behar dute. Horrela, hezteko modu tradizionaletan dauden bertikaltasun- eta aginte-harremanak gaindituko genituzke.

15. **Gurasoen parte-hartze aktiboa sustatzea**. Ezinbestekoa iruditzen zaigu, ikasleek eskoletan eta etxeetan jasotzen duten heziketari jarraipena, kohesioa eta koherentzia emateko.

16. **Inguruak hezkuntza-komunitateetan parte hartzea sustatzea**. Eskola gertuko erakundeen, pertsonen eta taldeen esperientziekin aberastu behar da; horrela, ikaskuntzak errotuko lirateke, eta ikasten jarraitzeko aukera emango lukeen ingurune seguru bat eraikiko genuke.

17. **Metodologia ludikoen eta partizipatiboen bidez gauzatzen diren ikaskuntzak sustatzea**, jolasen eta eztabaiden bidez, eta ikasleek beren gain ardurak hartuz. Elementu artistikoak sartzea, hala nola dantza, marrazketa edo margolaritza. Ikaskuntza aktiboa sustatzea.

18. **Eskola-orduak eta espazio fisikoak berregituratzea**. Zaintzen pedagogiak, batzuetan, eskola-ordutegiak proposatzen diren jardueretara egokitzea eskatzen du, eta, beste batzuetan, espazio fisikoak eta arkitektonikoak berregituratzea, horiek bat etor daitezen abiarazitako berrikuntza pedagogikoko prozesuekin.



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZAINTZEN PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE LOS CUIDADOS

InteRed
por una educación transformadora